



¡¡OHAR GARRANTZITSUA!!

MAISU-MAISTREN LEKUALDATZE-LEHIAKETA ETA ESPEZIALITATEEN ONARPENA

Maisu-maistren lekualdatze-lehiaketetan, azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako titulazio-baldintzak betetzen dituzten beste espezialitate bateko lanpostuak eskatu ahal izateko, espezialitatea aldez aurretik onartuta egon behar da, interesdunak eskatuta. Administrazioak ez ditu espezialitateak ofizioz aitortzen.

Estatuko lekualdatze-lehiaketaren hurrengo deialdiaren aurrean, gomendatzen dugu, hasi aurretik, hurrengo lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi duten eta beste espezialitate bat eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak ahalik eta lasterren egitea.

Ez dira lekualdatze-lehiaketan baliozkotzat joko aurrez ezarritako prozeduraren arabera aitortu ez diren espezialitate-eskaerak, nahiz eta lehiakideak dagokion espezialitatea eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten titulazioak izan.

Azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, gogorarazten da ez dela jasotzen ez euskara-espezialitaterik, ez aholkulari-espezialitaterik, eta, beraz, ezin direla aitortu.

Lekualdatze-lehiaketaren ondorioetarako, lekualdatze-lehiaketako eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik egindako espezialitateak aitortzeko eskaerak onartuko dira (lekualdatze-lehiaketako eskabideak aurkezteko epea amaitzeko eguna: azaroaren 26a).